

Garzonek Batasunaren laguntzak izozteko eskatu dio Europako Parlamentuari

Nikaraguako 'Casa Lindavista' etxea ixteko agindu du epaileak

Agentziak | MADRIL

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailea haratago joan zen atzo Batasunaren auzian, zenbait erabaki direla medio. Batasunak, «izen horrekin edo beste batekin», Europako Parlamentutik jaso dituen «diru laguntza guztiak izoztea» erabakitzea galdegin dio epaileak aipaturiko Parlamentuari. Gainera, Managuako Casa Lindavista «itxi, zigilatu eta bere enbargoa» agindu die Nikaraguako agintariei.

Beste erabakiak egoitzei dagozkie. Bruselan dagoen Herri Enbaxada noren izenean dagoen argitzeko, eta Baionako egoitzak «HB-EH-Batasunarekin eta bere ordezkariekin» izan dezakeen harremanaz txosten bat «premiatz» helarazteko eskatu dio Poliziaren Unitate Bereziari (UCI). Halaber, «Batasuna (Frantzia) eta Batasuna (Espainia), bien artean lotura» dagoen jakin nahi du.

Web orrien gainean ere beste agindu batzuk eman ditu Garzonek: Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) eta Australiako agintariei www.batasuna.org, www.euskal-herritarrok.org eta www.batasuna-barakaldo.org Interneteko hiru helbideak bertan behera utz ditzala.

Izen horiekin eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Sozialista Abertzaleak izenekin webgune berririk ez sortzeko «behar diren neurriak» har ditzala ere exijitu dio Red.es enpresari.

Izenak erregistrotik kanpo

Horrez gain, Batasuna, Euskal Herritarrok eta Herri Batasuna izenak erregistroetatik kentzea galdegin du epaileak.

Bestalde, zortzi finantza entitatek epaileari txosten bat bidali beharko diote 1978tik aurrera HB-EH-Batasunaren izenean, eta alderdi horiek ordezkatu dituzten pertsonen izenean egin dako operazioekin. Honako aurrezki kutxa eta bankuak dira: Euskadiko Kutxa, Vital Kutxa, BBVA, Kutxa, BBK, Nafarroako Kutxa, Santander Central Hispano eta Baserritarren Kutxa. Operazio horien ziurtagiri guztiak gordetzeko agindua eman diote zortzi entitatei.

Beste probidentzia batean,

Batasunaren jardueren etetearekin zerikusia duten prentsaurreko, manifestazio eta beste ekitaldien material grafikoa eta bideo zintak helarazteko eskatu dio Garzonek UCiri. Epaileari berdin dio ekitaldi horiek «baimenduak izan diren edo ez».

HB-EH-Batasuna edo bere ordezkari eta kideak azaltzen

diren txosten guztiak bidaltzea ere nahi du epaileak.

Azkenik, finantzetan adituak diren hiru peritu izendatu ditu. Horiek talde abertzalearen kontuei buruzko txosten bat egin beharko dute, «bere finantzatzeko iturriak, diru-sarrerak, operazioak eta kantitate bakoitzaren erabilera zehaztuz».



DANI GAGO / EFE

Baltasar Garzon, herenegun, Madril, liburu baten aurkezpenean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PÚBLICAS

EBAZPENA, 2002KO UZTAILAREN 30EKO, GARRAIO AZPIEGITURA ZUZENDARIARENA, BILBO-DONOSTIA TRENBIDEKO DONOSTIAKO HEGOALDEKO SAHIESBIDEAK UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BERRIA JENDAURRERA ATERATZEN DUENA.

2002ko uztailaren 30ean, Garraio Azpiegituraren zuzendariak honako ebazpen hau hartu du:

"EuskoTren-en Bilbo-Donostia lineako Donostiako hegoaldeko sahiesbidea eraikitzeko eta merkataritzako garraioko egokitzeko proiektua" k ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrera ateratzea. Ebazpen hau azkena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izango dira, okerrik baldin badago zuzentzeko, edo funtsa edota izapideari buruzko arrazoiengatik ondasun eta eskubideak okupatu beharra ukatzeko. Horrelako alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira helbide honetan: Garraio eta Herri Lan Saileko Garraio Azpiegitura Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean.

Gasteiz, 2002ko uztailaren 22a.
Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JOSE MARIA OLAZAGIRRE ARA.

UDALERRIA: DONOSTIA

FUNTSA zk	JABEA ETA HELBIDEA	LURRAREN SAILKAPENA	DESKRIBAPENA	ERAGIN MOTA ETA EREMUA		
				DESJABETZA	ALDI BATERAKO OKUPAZIOA	BIDEZORRA
1	Ramón Gorostidi jaunak DONOSTIA	Lur urbanizaezina	Lursaila, Añorgaldean.	61,45 + 976,20 m ²	1.253,65 m ²	
2	Ana Isabel Etxarri Iriberrí J. Fernando Fulgencio Arandia DONOSTIA	Lur urbanizaezina	Lursaila.	106,75 m ²		
3	José Manuel Anza Uranga DONOSTIA	Lur urbanizaezina	Lursaila.	36,24 m ²		
4	Orbela, S.A. Gipuzkoako Foru Aldundia DONOSTIA	Lur urbanizaezina	Lursaila.	155,50 + 56 m ²		
5	Gipuzkoako Foru Aldundia DONOSTIA	Lur urbanizaezina (S.O.)	Autobidearen azpitiko lursaila.	420,65 + 388 m ²		
6	Inmobiliaria Lugaritz, S.A. DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagola-Azpiko lursaila	80,30 + 663,60 m ²		
7	Construcciones Moyua, S.A. Barinaga Oinalde jaun-andreak DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagola-Azpiko lursaila	1.408,45 + 260 m ²	471,50 m ²	
8	Juan Urbistondo Tellería M. Pilar Ayestarán Cortés DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila	962,50 + 5 m ²	445 m ²	
9	Gipuzkoa Donostia Kutxa DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila	705,50 + 30 m ²		
10	Emilia Brassart Aranjuelo Ez dakigu helbiderik	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila	140,55 + 34 m ²		
11	Construcciones Sukia, S.A. DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila	148,70 m ²	37 m ²	80 m ²
12	Felix Plano Eceiza Rosario Arruti Fuentes DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Eranzeta Txiki etxearen aurreko bidea eta lorategiaren zatia	61,50 m ²	105 m ²	
13	Manuel Múgica Elícegui Ángeles Múgica Isasa DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Sesietegi-Berri etxearen aurreko lur zerrenda	36,20 m ²	166,30 m ²	
14	Neke-Etxeko jabeen elkarte DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Neke-Etxe baserriaren aurreko lur zerrenda	5 m ²	100,50 m ²	
15	Construcciones Sukia, S.A. DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila	68,75 m ²		
16	Construcciones Sukia, S.A. DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Pagolako lursaila			900 m ²
18	Zamora Malcorra jaun-andreak DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Gure Berio baserriaren aurreko lur zerrenda	3 m ²	217 m ²	
19	Basilio Múgica Elícegui Olaizola Múgica jaun-andreak DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Sesietegiko lursaila		48,60 m ²	
20	Basilio Múgica Elícegui Olaizola Múgica jaun-andreak DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Sesietegiko lursaila	23,30 m ²		
22	Guillermo Martínez Azcoaga DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Sesietegiko lursaila	44,55 m ²		
23	Guillermo Martínez Azcoaga DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Sesietegiko lursaila	197 m ²		
25	Orbela, S.A. DONOSTIA	Lur urbanizagarria	Arbaizeneako lursaila (P-7)	27,62 m ²	730 m ²	
26	Lazkano pasealekuko 47-49 eta 51-53 etxeetako jabeen Elkarte DONOSTIA	Hiri-lurzorua	Etkeen arteko gunea		300 m ²	